

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Osasunaren ondasun higiezinaren tasazioa zein den jakin du

Horrenbestez, klubaren zorraren berregituratze-legea aplikatzeko jarduerekin jarraitzen da, Europako Batzordeak foru-arauaren aurkako salaketa artxibatu ondoren

Miércoles, 22 de abril de 2015

Nafarroako Gobernuak Club Atlético Osasunaren ondasun higiezinaren tasazioa zein den jakin du gaurko bilkuran. Tasazio hori enpresa independente batek egin du.

Tasazio hori abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legeak, kirol-klubak Nafarroako Zerga Ogasunarekin zuen zorraren berregituratzeari buruzkoak, ezartzen zuen. Balioespena Nafarroako Gobernuak eta klubak elkarrekin adostutako "Tasaciones y Consultoría SA" enpresak egin du. Enpresa horrek, jadanik, finken tasazio bat egin zuen 2014ko irailean. Gaurko erabakiarekin, Nafarroako Gobernuak jarduerekin jarraitzen du legea aplikada, iragan ostiralean Europako Batzordeak Club Atlético Osasunari Estatuak ustez emandako laguntzen gaineko salaketa artxibatu ondoren. Gogoratuko denez, salaketa hori era anonimoan jarri zen legea onartu aurretik, eta haren zenbait alderdi zalantzan jartzen zituen. Foru Gobernuak, Europako Batzordearen eskaerari erantzunez, hari egindako jardueri buruzko informazio osoa igorri zion.

Europako Batzordearen erabakiaren aurretik, Foru Gobernuak legean jadanik jasotako beste ekintza batzuk abiatu zituen, esaterako: kontu-ikuskapenak egiteko eskaera eta 4 milioi euroko abala ematea.

Legea

Abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legearen helburua kirol-entitatearen finantza-egonkortasuna berreskuratzen laguntzea da, "ez soilik Nafarroako Foru Komunitateari Club Atlético Osasuna erakunde ikurrak aurrera jarraitzea interesatzen zaiolako, baizik eta, beste edozein irizpideren ginetik, ulertzen duelako Foru Ogasunaren interesak babesteko izan daitekeen irtenbide egokiena dela", sarreran adierazten den moduan.

Horretarako, zerga-zorraren ordainketa berregituratzea aurreikusten du, eta abal bat ematea une hauetan entitateak behar duen kapital zirkulatzailerako finantzatzeko.



Nafarroako Jauregi irudia.

Lehen helburua lortzeko, egindako zorra desagertzeko baimena ematen da ondasun higiezin balioren baliokide den zenbatekoan, eta haren titulartasuna Nafarroako Foru Komunitateak hartuko du bere gain. Aldi berean, kirol-entitateari Taxoareko kirol-instalazioak dauden finkak alokatzeko baimena ematen da, bai eta Sadar estadioaren lagapen-erabilera ere 30 urterako. 75.000 euroko prezioa ezartzen da taldea Bigarren A Mailan dagoen bitartea, eta 150.000 eurokoa Lehen Mailara igotzen bada.

Gainera, legeak finken eskualdatzearekin ase gabeko zerga-zorren diferentziala ordaintzeko eraren baldintzak ezartzen ditu. Alde horretatik, hiru urteko luzamendua aurreikusten da interesik gabe (Lehen Mailara igotzen bada salbu) eta honako kontzeptu hauen atzerapenak gehienez ere 30 urtez: ikus-entzunezko eskubideen lagapenetik klubak jasotako kopuruen % 25, jokalaria-transferentzien eskubideen % 25 eta klubak babes-kontratuengatik Nafarroako Gobernuaren eskutik jasotako kopuruen % 100.

Azkenik, 4 milioi euroko abala ematea jasotzen du.